



Beasainen, 2019ko maiatzaren 22an

BEASAINGO UDALA ETA ARRANO KULTUR ELKARTEAREN ARTEKO ELKARLAN HITZARMENAREN ERANSKINA

Alde batetik, **BEASAINGO UDALA**, AITOR ALDASORO Iturbe jaunak ordezkaturik, Beasaingo Udalaren Alkate-lehendakaria, Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21. artikulua.

Bestetik, **ARRANO KULTUR ELKARTEA** (G20111233), MIREN LOURDES GALARRAGA ZEBERIO andreak, 15.986.129-W N.A.N. zenbakidunak, ordezkaturik, elkarteko lehendakaria, kargu horretarako 2014ko ekainaren 9ko batzar orokorrean hartutako erabakiaren arabera izendatua izan zena.

AURREKARIAK

I. Udalak kultura elkarteei urteko egitarauak edota ekintza bereziak antolatzeko eta garatzeko diru-laguntzak ematen die, kultura arloari egiten dioten ekarpena kontuan hartuta. Laguntza hauen bidez, udalak herriko elkarteak dinamizatu eta elkarren arteko komunikazioa areagotu nahi da, estrategia bateratuak, berritzaileak eta eraginkorragoak proposa ditzaten.

II. Herritarrek Batzordeak 2019ko urtarrilaren 24an burututako bileran ARRANO KULTUR ELKARTEA.rekin hitzarmena egiteko proposamena onartu zuen, antolatuko diren jardueren artean aurikusiz Loinatz Jaietako Mariaren Jaitsiera (maiatzak 31) eta Baserritarren eguna (ekainak 4). Bi alderdien arteko harremana arautzeko Udalak eta elkarteak hitzarmena sinatu zuten.

III. ARRANO KULTUR ELKARTEAK Loinatz Jaietan Txozna Guneko jardueren egitaraua ere antolatuko duela jakinarazi du. Egitarau hau herritarren intereseko jardura izanik Herritarrek Batzordeak 2019ko maiatzaren 16an burututako bileran onartu du Txozna Guneko egitaraua ere Udalak ARRANO KULTUR ELKARTEA.rekin duen elkarlan hitzarmenean txertatzea.

Guzti horren ondorioz, Loinatz Jaietako Txozna Gunetako jardueren egitaraua garatzeko, bi aldeek ondorengo baldintzak adostu dituzte:

BALDINTZAK

LEHENENGOA. Txozna Guneko Egitasmoa

ARRANO KULTUR ELKARTEAK 2019 urtean Loinatz Jaietan TXOZNA GUNEAN ondorengo jarduerak antolatu eta ordaintzeko konpromisoa hartzen du:

.- Txozna guneko egitaraua.

.- Sexu eta Genero aniztasunaren inguruko jarduerak antolatzea: Ekainak 7 Egun Morea.



Beasaingo Udala



-Maiatzak 30

19:00 Trikipoteoa

20:00 Txozna Irekiera

20:30 Kontzertua: Ane eta Malen Talka

-Maiatzak 31

22:30 Argazki Solidarioa

23:00 Kontzertuak: Alerta Gorria / Nafarroa 1512 / The Bobby's / Azken Sustraiak

-Ekainak 1

19:00 Sagardo Dastaketa

22:30 Kontzertuak: Bake Faltsua / Hell Riders / Ziribulio Sound

-Ekainak 2

19:30 Mural Margoketa

20:30 Karaokea

-Ekainak 3

19:00 Elektrotxufla

22:30 Kontzertuak: Kontuz Erromerie / DJ Bull

-Ekainak 7

17:00 Parafernalia Tailerra

19:30 Korrekintus Giroa

22:30 Kontzertuak: Karea / Muxutruk Erromerie

-Ekainak 8

23:00 Kontzertuak: Guri 5 / Stereotipe /

BIGARRENA. Dirulaguntza.

Beasaingo Udalak jarduera horien antolaketarako **7.000 €** emanez lagunduko dio ARRANO KULTUR ELKARTEARI. 4.500 € 60.481.337.20.05 kontusailari dagozkio eta 2.500 € 41.226.231.50.06 kontusailari.

Aipatutako diru kopuruaren ordainketa honela banatuko da:

Lehen Ordainketa. 3.500 €, hitzarmenaren eranskin hau sinatu eta gero.

Bigarren Ordainketa. Dirulaguntzaren azken ordainketa, ondorengo dokumentazioa aurkezterakoan:

a) Jarduketa memoria, diru laguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena. Zer jarduera burutu den eta zer emaitza izan den adierazi behar dira baita ekitaldi guztietan egindako hizkuntz erabilpenaren berri zehatza eta arrazoitua emanez. Idatziz sortutako materialaren ale bana.

b) Loinatz Jailetako Txozna Guneako Egitarauan izandako gastu guztien justifikazioa. Fakturak edo eskuratutako dokumentuak, ahal bada originalak, edota fotokopiak, egindako gastuen egiaztargiri. Udalak eta Arrano Kultur Elkarteak sinatutako hitzarmenak zehaztutako moduan.

c) Diruz lagundutako jarduketa finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.



HIRUGARRENA. Ordezkarriak.

Txoznari dagozkion edozein gauzetarako ordezkarriak honakoak izango dira: Beasaingo Udaleko ordezkarria Iker Barriocanal jna. (629 104 022) bere posta elektronikoa: udaltzaingoa@beasain.eus eta Arrano Kultur Elkartearen aldetik Maddi Imaz. (679 062 356).

LAUGARRENA. Txoznen Esparrua.

Txoznen esparrua Gipuzkoa Plazan egongo da kokatua, Urbietara eraikinaren ondoan eta ondorengo azpiegitura izango du:

- 1.1. 25 x 10 metrotako karpa (kontrapisuekin muntatuko da) eta barrualdean argiteria jarriko zaio.
- 1.2. Karparen kanpo aldean eta albo batean, bi txosna elkarri atxikita, 6 x 4 metrotakoak. Horretaz gain, almazena jarriko da kanpotik eszenatokiaren eskubialdean.
- 1.3. 8 x 5 metrotako eszenatoki plataforma bat karparen barruan. Karpa, eszenatokiaren plataforma eta karparen barruko argiteria jartzeaz Udala arduratuko da.
- 1.4. Txoznen esparruan jarduera dagoenean, karpa irekita egongo da atzeko aldean eta eszenario ondoko zati batean, hustuketa bat eman beharko balitz, pertsonen irteera ahalik eta azkarren egiteko.
- 1.5. Bi ostiral eta larunbateetan haima bat egongo da jana zerbitzatu behar duenarena. Horrentzat karparen atzealdeko postean argindar koadro bat jarriko da.

BOSTGAGARRENA. Musikaren Bolumena.

Txoznetako musika ekipoen potentzia mugatu egingo da. 100db baino gutxiago izan behar du eta ezingo dio eragin ez bizilagunei, ezta gainontzeko ekintzei ere.

SEIGARRENA. Ura eta Estolteria.

Esparruak ur hartune eta hustubide instalazioak izango ditu. Jarriko diren txosnak beraien kontura egin beharko dute aipatutako instalazioetatik txoznarainoko ur hartunea eta hustubidea.

ZAZPIGARRENA. Ibilgailuarekin mugitzeko baimen txartela.

Txoznetarako zerbitzua eman behar duten ibilgailuen matrikulak emango zaizkio Udaltzaingoiari, oinezkoen gunean sartu ahal izateko bidezkoa den baimena emateko.

Karga eta deskargarako gunea erabiliko dute baina ezin izango dute kotxeen aparkaleku bihurtu segurtasun alderdiak kontuan hartu behar direlako.



Beasaingo Udala



ZORTZIGARRENA. Kontzertuak eta gainerako musika ekintzak.

Musika kontzertuak ondorengo orduetarako amaituta egon behar dira:

- Astelehena, Ostiralak eta Igandea: goizeko 2:00etarako.
- Larunbatak: Goizeko 2:30etarako.

BEDERATZIGARRENA. Muntaia eta desmuntaia.

Lan hauetarako ezarri den egutegia honako hau da:

- 1.6. Karparen muntaketa, 2019-05-28an (asteartea), goizean egingo du enpresak.
- 1.7. 2019-05-28an arratsaldean txosnen muntaketa.
- 1.8. 2019-05-29an goizean elektrizista lanak egingo dira.
- 1.9. HUSTEA.- 2019-06-10ean karpa kenduko da. Hurrengo egunean, ekainaren 11n, arratsaldean, txoznak kenduko dira.

HAMARGARRENA. Ordutegia.

Txoznak, ondoren aipatzen diren orduak arte egon ahal izango dira irekita: 2019ko maiatzaren 29an eta ekainaren 6an, musika 23:00arte eta 24:00ak arte musikarik gabe. Maiatzaren 31n, ekainaren 1ean, 7an eta 8an (ostiralak eta larunbatak) hurrengo eguneko goizeko 5ak arte eta ordubete gehiago baina musikarik gabe; 2019-06-2an (Igandea – Loinatz eguna) hurrengo eguneko goizeko 3:00ak arte; 2019-06-3an (Astelehena – Loinatz bigarrena) hurrengo eguneko goizeko 4:00ak arte eta ekainaren 4an (asteartea) eta 9an (igandea), 24:00ak arte.

HAMAIKAGARRENA. Asegurua.

Karpa eta Txoznetako instalazioen Erantzukizun Zibileko Aseguru-poliza egin beharko da eta hori egin izana egiaztatu, poliza eta prima ordaindu izanaren frogagiria 2019-05-29 baino lehen Udaletxera (Pertsonal bulegora) ekarrita.

HAMABIGARRENA. Instalazio Elektrikoak.

Elektrizitate-instalazioa egin ahal izateko, txosnak honako elementu hauek behar ditu:

- 1.10. Babes-koadroa.
- 1.11. Argiteri sarea.
- 1.12. Entxufe-sarea lurrerako hartunearekin.

Horiek bete ezean, ez da elektrizitarerik emango.

HAMAHIRUGARRENA. Balorazio Bilera.

Loinatz jaiak amaitu ondoren balorazio bilera egingo da Loinatz jaietako batzorde irekian. Elkarrekin bertan parte hartzeko konpromezua hartzen du.



HAMALAU GARRENA. Adin Txikikoak.

Adin txikikoek ezin izango dute txoznetan lanean aritu eta inolaz ere ezin izango da adin txikikoei alkohol-dun edariak zerbitzatu. Udalak salaketaren bat jasoz gero eragina izango du diru-laguntzan.

HAMABOST GARRENA.- Hitzarmena.

Eranskin honek Udalak eta ARRANO KULTUR ELKARTEAK aurretik sinatutako hitzarmena jarraituko du.


Eta horren guztiaren adostasun frogatzat, bildutakoek dokumentu hau bikoizturik sinatu dute goiburuan adierazitako data eta lekuan.

Beasaingo Udala



Sinatua: Aitor Aldasoro Iturbe
Alkatea

ARRANO KULTUR ELKARTEA



Sinatua: Miren Lourdes Galarraga
Lehendakaria